

SUKALDE CHOKOAN KONTU-KONTARI.

FERNANDOREN EZÚRRAK.

Amezketako Erretore ospatsuak eta Fernando koplari erneak, atsegintasun aundiak izan oi zituzten bide onezko gauzetan alkarri chaskoak ematen.

Igande batean, beste askotan bezela, gonbidatu zituen Erretore jaunak Fernando eta beste koplari batzuek apaitara; eta para erazi zion bere mirabeari kazuela bat gisadu aragi bikaiñarekin egiña, esanaz, maiera ateratzean, ezur guziak para zitzala Fernandoren aldetik kazuelaren ertzean, eta mamiak, Erretorea zegoen aldetik.

Esan ta egiñ; mirabeak para zuen kontuz kazuela nagusiak esan bezela maian; baña Fernandok laster igarri zion beretakoren bat egin nai ziola, apaiz alai ark.

Errezocho bat egiñ ondoren lanari ekitera zijoazela, Erretore jaunak esan zion:

—Fernando, lan esturen bat izango uen gaur noski, besperetara ez aizenean juan?

—Jauna, besperetan nintzan ni.

—Ez.

—Bai.

—Ez

—Bai, jauna, bai.

—Izan litekek, baña, neri beintzat ala esan zidatek.

—¡A! Beraz, bestek esan dio? Begira beza bada: Orrelako ausardia duenak berori bezelako gizon bati gezurra esateko, sinistu bezait, merezi lukeala lepoa biurtzea kazuela oniše bezela; eta, au esanaz, biratu zuen kazuela, ezurrak paratuaz Erretore jaunaren alderonz, eta mamiak bereronz.

KLAUDIO OTAEGI-KOAK.